

Gure proiektua kale egoeran dauden pertsoneri zuzenduta dago. Pertsona hauek jasaten duten bizi baldintzei erreparatuz eta gaur egungo gizartearen analisi txiki bat egin ondoren, gure kanal eraginkorra propagandistikoa izango litzateke. Hala nola, kartelak herriko kaleetan eta tabloietan, eskuorriak, etab... Kartel horietan gure proiektuari buruzko informazioa (izena, kontaktatzeko modua...) eta gure zereginen laburpen bat jarriko genuke.

Gauak luzeegi?

Etor zaitez gure kapsuleetara!

Zer da?
Gizartearen baztertuta bizi bazara eta non lo egin ez baduzu, gure kapsulak prest daude gau hotzak eta euritsuak igaro ahal izateko, ez gehiago kalean lo egin!

Eguneko zentroa
Bertan jarduera eta solasaldi asko egingo dira osasun-arriko profesionalekin, autonomia hobetzeko esku-hartze bat eginez.

Non gaude?
Uribitarte 12 kalean

Jarri gurekin harremanetan
62X 333 X19
www.wasamasa@gmail.eus

ZABALDU MEZUA!!

Bestalde, sare sozialen bidezko publizitatearen bidez influencer batekin, hala nola, @aquisandrax-rekin kolaborazioen bat egingo genuke, moda, bizimodu eta komedia laburreko bideoengatik eta plater eta aperitibo ezberdinak probatzen dituen janariaren eduki tematikoagatik irabazi du ospea TikTok-en, gaur egun Floridan bizi da eta esperientzia nolakoa den kontatzen du, nahiz eta gaur egungo gaiei buruz ere hitz egiten duen, baita gordofobiari buruz ere. Sare sozialetan erakusten duena gure proiektuarekin bat datorrela uste dugu, hau da, balioak, sinesmenak etab. Beraz, honekin lotuta gure produktua aurkeztea ondo egongo litzateke. Baita, telebistan, adibidez, eitb-en, Tele Bilbao edo Tele 7-n gure zerbitzu eta produktuari buruzko publizitatea egingo genuke. Gure erabiltzaileak telebista ikusten duten une bakarra tabernetan dela jakinez, telebista kanal egokiena Telecinco izango litzateke eta bilbo inguruko telebistetan (aurretik aipatutakoak). Azkenik, Bilbo inguruko irratieta, esate baterako, radio nervionen eta Gaztean honen inguruko informazioa ere emango dugu.

“Gauak luze egiten dira nora joan ez duzunean? Imajinatu arazo horri konponbidea aurkitu ahal izatea; horretarako, kapsula batzuk sortu ditugu, non gau hotz eta ilun horiek amaituko diren. Jarri gurekin harremanetan!”